

APT

Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Elkartegia, Saren

Administrazio Kontseiluaren Estatutua



Aurkibidea

I. KAPITULUA	3
II. KAPITULUA	4
III. KAPITULUA	4
IV. KAPITULUA	6
V. KAPITULUA	6
VI. KAPITULUA	7
VII. KAPITULUA	9
VIII. KAPITULUA	9
IX. KAPITULUA	12
X. KAPITULUA	iError! Marcador no definido.3



I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Estatutuaren xedea da Sozietatearen Administrazio Kontseiluaren jardun-printzipioak, haren antolaketaren eta funtzionamenduaren oinarritzko arauak eta kontseilua osatzen duten pertsonen jokabide-arauak ezartzea, eta hori guztia kudeaketa ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

2. artikulua. Aplikazio-eremua

Estatutua aplikatuko zaie eta nahitaez bete beharko dute Sozietatearen Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsona guztiek, baita, izaera espezifikoarekin bateragarriak diren neurrian, Sozietatearen goi-zuzendaritzako kargudunek ere, nahiz eta kontseilari ez izan, fidelitate-, leialtasun- eta sekretu-betebeharrei buruzko alderdi guztietan.

Era berean, Estatutua aplikatzekoa izango zaie, izatez eta edozein arrazoiengatik, nabarmenagoa edo txikiagoa izan, administrazio-erantzukizunak beren gain hartzen dituztenei.

3. artikulua. Indarrean sartzea eta aldatzea

Administrazio Kontseiluak onartzen duen egunean jarriko da indarrean Estatutua.

Administrazio Kontseiluari dagokio Estatutuan aldaketak egitea, presidentetzak edo kargua betetzen ari diren Kontseiluko hiru kidek hala eskatuta, beharrezko edo komenigarri egiten duten inguruabarrak gertatzen direla irizten diotenean.

Estatutua aldatzeko eskaera oro arrazoitu egin beharko da, eta, horretarako, eskatzen dutenek proposamenaren testuarekin batera txosten bat aurkeztu beharko dute, proposatutako aldaketaren arrazoiak eta irismena justifikatzeko.

Estatutua aldatzeko proposamen bati buruz eztabaidatu eta erabaki behar duen Kontseiluaren bilerarako deialdia hamar egutegi-egun lehenago egingo da, gutxienez. Deialdiari proposamenaren testua eta justifikazio-txostena erantsi beharko zaizkio.

4. artikulua. Interpretazioa

Estatutua aplikatu beharreko lege- eta estatutu-arauen arabera interpretatu behar da.

Gobernu korporatiboaren arloko informazio-, gardentasun- eta segurtasun-betebeharrak nahitaez bete beharreko printzipioak izango dira arau horiek interpretatzerakoan.

Administrazio Kontseiluari dagokio, gehiengoz, Estatutuaren aplikazioan eta interpretazioan sor daitezkeen zalantzak edo desadostasunak ebaztea.

Legea eta Estatutu Sozialak gailenduko dira Estatutuan xedatutakoarekin kontraesanean egonez gero.



5. artikulua. Hedapena

Administrazio Kontseilua osatzen duten pertsonak edo Sozietatean goi-zuzendaritzako karguak dituztenek, aplikagarri zaien guztian, Estatutua ezagutu, bete eta betearazteko betebeharra dute. Horretarako, Kontseiluaren Idazkaritzak Estatutuaren ale bana emango die, izendapena onartzen dutenean edo kontratatzen dituztenean, kasuaren arabera.

Estatutua eta, hala badagokio, haren aldaketak Sozietatearen webgunean argitaratuko dira.

II. KAPITULUA

KONTSEILUAREN OSAERA

6. artikulua. Osaera

Akziodunen Batzar Nagusiak, indarrean dauden lege- eta estatutu-aginduen arabera, bazkideek proposatuta, Administrazio Kontseilua osatuko duen kide-kopurua ezarriko du.

Bazkideek, inguruabarrek hala gomendatzen dutenean, Kontseiluaren osaeran kontseilari independenteak egotea proposatuko dute Batzar Nagusian.

Bazkideek, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen legediaren arabera, Kontseiluaren osaeran emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadila proposatuko dute Batzar Nagusian.

Artikulu honetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo akziodunei legeztaritutako ordezkaritza proportzionalerako eskubideari.

III. KAPITULUA

KONTSEILUAREN EGITURA

7. artikulua. Kontseiluko presidentetza

Kontseilua osatzen duten pertsonen artean aukeratuko du presidentea Administrazio Kontseiluak.

Presidentetzari dagokio Administrazio Kontseilua deitzeko, bileren gai-zerrenda osatzeko eta eztabaidak zuzentzeko ohiko ahalmena. Hala ere, presidentetzak egin behar du Kontseilurako deialdia, Kontseilua osatzen duten pertsonen herenak hala eskatuta.

Presidentetzak honako erantzukizun hauek hartuko ditu bere gain:

- Kontseilua osatzen duten pertsona guztiak bileretara joan daitezen saiatzeko; horretarako, deialdiak Estatutu honetan ezarritako moduan eta epeetan bidaliko dira.

- Kontseilariren batek Kontseilura ez joateko dituen arrazoiak egiaztatzea, ez joate hori behin eta berriz gertatzen denean.
- Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, baita, hala badagokio, haren ondoriozko hobekuntza-proposamenak abian jartzea eta antzemandako eraginkortasunik ezak zuzentzea ere.

8. artikulua. Kontseiluko presidenteordetza

Administrazio Kontseiluak presidenteorde bat edo gehiago izendatu ditzake presidentearen ordezkari jardungo dutenak, hark bere egiteko bete ezin badu edo ez badago, eta, oro har, Kontseiluak edo presidentetzak berak egoki irizitako eginkizunak edo eskumenak hartuko dituzte beren gain.

Presidenteorde bat baino gehiago izanez gero, izendapenak egiterakoan Kontseiluak berak adierazitako ordenaren arabera beteko dituzte beren eginkizunak.

9. artikulua. Kontseiluko idazkaritza

Administrazio Kontseiluak idazkaria izendatuko du, baina ez du Kontseiluko kide izan beharrik.

Idazkaritzak presidentetzari lagunduko dio bere zereginetan, eta kontseilariei beharrezko aholkularitza eta informazioa emateaz arduratuko da, baita dokumentazio soziala gordetzeaz, akta-liburuetan bilkuren garapena behar bezala jasotzeaz eta erabaki sozialak ziurtatzeaz ere.

Idazkaritzak, nolatan ere, Administrazio Kontseiluaren barne-funtzionamendua arautzen duten funtzionamendu-arauak behar bezala aplikatzen direla eta prozedurak behar bezala garatzen direla zainduko du.

Idazkaritzak bere gain hartuko du aktak jasotzeko eta sinatzeko prozesu osoa behar bezala garatzea.

Prozedura bat ezarriko da Idazkaritzak Sozietatearen dokumentazio eta liburu ofizialen zaintzari buruz dauden arauak aplikatzen dituela kontrolatzeko, Gobernu Arduratsuaren Txostenean barne-auditoretzaren emaitza barne hartuta.

10. artikulua. Kontseiluko idazkariordetza

Administrazio Kontseiluak idazkariorde bat izendatu ahal izango du, Kontseiluko kide izan beharrik ez duena, Kontseiluko Idazkaritzari lagundu diezaion edo, bere eginkizunak betetzean ezinezkoa bada edo ez badago, ordezkari dezan.

11. artikulua. Kontseilaritza eskuordetuak

Kontseiluak eskuordetutako kontseilaritza bat edo batzuk izendatu ditzake, eskuordetzen diren ahalmenen zerrenda xehatua eginez, edo legez eta estatutuen arabera eskuordetu daitezkeen guztiak eskuordetuz.

Eskuordetutako kontseilaritza bat baino gehiago egonez gero, adierazi beharko da zein ahalmen betetzen diren era solidarioan eta zein modu mankomunatuan, edo,



hala badagokio, ea guztiak edo batzuk modu batean edo bestean gauzatu behar diren.

12. artikulua. Batzorde Betearazleak

Kontseiluko edozein kideri banaka eskuordetzen zaizkion ahalmenen kalterik gabe, Administrazio Kontseiluak Batzorde Betearazleak eratu ahal izango ditu. Batzorde horiek berariaz eskuordetzen zaizkien ahalmenak izango dituzte.

Administrazio Kontseiluak zehaztuko du zenbat kide izango diren Batzordeetan, haien izendapena eta baliogabetzea, eta, oro har, Batzordeen arautzea.

Kontseiluari emango zaio Batzorde Betearazleen bileretan aztertutako gaien eta hartutako erabakien berri.

Kontseiluak eratutako Batzorde guztiek bilkuren aktak egingo dituzte, Administrazio Kontseilurako aurreikusitako baldintzetan.

IV. KAPITULUA

KONTSEILUKO BATZORDEAK

13. artikulua. Administrazio Kontseiluko batzorde eragileak

Kontseiluko edozein kideri banaka eskuordetzen zaizkion ahalmenen kalterik gabe, eta erabakitzeke ahalmen orokorrak dituen batzorde betearazle bat eratzeke duen ahalmenaren kalterik gabe, Kontseiluak, halaber, jarduera-arlo espezifikoaren araberrako batzorde eskuordetuak edo kontsulta-izaerako beste organo batzuk eratu ahal izango ditu.

Presidentetzak izendatuko du Administrazio Kontseiluko idazkari-lanak egingo dituen pertsona. Presidentetzak deialdia egin ondoren bilduko dira batzordeak. Bereiziki aurreikusi ez den guztian, Estatutu Sozialek eta Estatutuak Kontseiluari buruz ezarritako funtzionamendu-arauak aplikatuko dira, betiere batzorde horien izaerarekin eta eginkizunarekin bateragarriak badira.

Kontseiluak eratutako edozein batzordek saioen aktak egingo ditu, Administrazio Kontseilurako aurreikusitako baldintzetan.

V. KAPITULUA

KONTSEILUAREN EGINKIZUNAK

14. artikulua. Kontseiluaren eskumenak

Batzar Nagusiaren eskumenekoak diren gaietan izan ezik, Administrazio Kontseilua da sozietatearen erabaki-, kontrol- eta ordezkaritza-organo gorena.

Kontseiluaren politika da Sozietatearen ohiko kudeaketa organo betearazleen eta zuzendaritza-taldearen esku uztea, eta haren jarduera gainbegiratze-funtzio orokorrean biltzea.



Ezin izango dira eskuordetu legez edo estatutuen arabera Kontseiluarentzat gordetako ahalmenak, ezta gainbegiratze-funtzio orokorra arduraz betetzeko beharrezkoak direnak ere.

Sozietatearen Estatutuetan ematen zaizkion ahalmenez gain, Administrazio Kontseiluak erantzukizun hauek izango ditu:

1. Sozietatearen Plan Estrategikoa onartzea eta, aldian-aldian, haren garapen-eta aplikazio-maila egiaztatzea.
2. Urteko Kudeaketa Plana onartzea, aurrekontuen proposamena barne, eta plana gauzatzeari buruzko ebaluazio partzialak egitea.

15. artikulua. Enpresaren egoerari eta jarduera garatzen duen inguruneari buruzko informazioa

Kontseiluaren bileren gai-zerrendan Sozietatearen egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko puntu bat sartuko da, eta gutxienez urtean behin egoera ekonomiko orokorrari eta euskal sektore ekonomiko nagusiei buruzko informazio zehatza emango da.

16. artikulua. Inbertsio-erabakiak hartzeak gizartean eta ekonomian duen eragina

Kontseiluak onartu beharreko inbertsio-memoretan, horien eragin ekonomiko eta sozialari buruzko azterketa bat sartuko da, eta dagokion bileraren aktan jasoko da Kontseiluak alderdi horietako bakoitzari buruz egiten duen balorazioa.

VI. KAPITULUA

KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

17. artikulua. Kontseiluaren bilerak

Administrazio-organoa Sozietatearen interesak eskatzen duen beste aldiz bilduko da, presidentetzak hala eskatuta eta, gutxienez, hiru hilean behin. Kontseiluko kideen gutxienez heren bat osatzen duten administratzaileek deialdia egin dezakete, gai-zerrenda adierazita, egoitza soziala dagoen herrian egiteko, baldin eta, presidenteari aldeztu aurretik eskatuta, justifikatutako arrazoirik gabe deialdia hilabeteko epean egin ez badu.

Administrazio Kontseiluaren bileretarako deialdia gutun, fax, telegrama, posta elektronikoa edo jaso dela egiaztatzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo da, eta presidentetzaren edo idazkaritzaren sinaduraren bidez baimenduko da, presidentetzaren aginduz.

Deialdia **gutxienez hamar egutegi-egun lehenago** egingo da, gutunez bada, edo **zazpi egutegi-egun lehenago**, posta elektronikoz bada, Kontseiluko kide bakoitzak horretarako zehaztutako helbidera.

Kontseiluaren ezohiko bilkurak telefonoz deitu daitezke, gutxienez 48 ordu lehenago, eta ez da aplikatuko aurreko paragrafoan adierazitako aurrerapen-epea eta



gainerako baldintzak, baldin eta, presidentetzaren iritziz, hala komeni edo justifikatzen badute.

Bilerak, oro har, sozietatearen egoitzan egingo dira, baina presidentetzak zehaztutako beste leku batean ere egin daitezke, edo bide telematikoen bidez, kontseilariak aldi berean leku desberdinetan bertaratuta, ikus-entzunezko edo telefono bidez konektatuta, betiere bertaratzen diren kideen identifikazioa eta interaktibitatea eta interkomunikazioa denbora errealean eta, beraz, egintzaren batasuna bermatzen badira. Kontseilarietako bat sozietatearen egoitzan badago, bilkura bertan egin dela ulertuko da. Hala ez bada, bilkura kontseiluburua dagoen lekuan egin dela ulertuko da.

Kontseiluaren bilkura baliozkoa izango da, aldez aurretik deialdia egin beharrik gabe, baldin eta, Kontseilua osatzen duten pertsona guztiak bertan edo ordezkaturik egonik, aho batez onartzen badute bilkura egitea.

Kontseiluak erabakiak idatziz eta bilkurarik gabe hartzea Kontseiluko kide bat ere prozedura honen aurka ez dagoenean baino ez da onartuko, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Bilera bakoitzaren deialdian, aurreikusitako guztizko iraupena adieraziko da, gutxi gorabehera. Iraupen hori nahikoa izan beharko da gai-zerrendan sartutako gaien behar den sakontasunez heltzeko eta eskaerak eta galderak egiteko denbora gehigarria eskaintzeko.

Urtean behin, Kontseiluak inkesta bat egingo die kideei, beren lanen kudeaketa eta kalitatea ebaluatzeko. Era berean, gobernu korporatiboari buruzko txosten bat egingo du urtero, Batzar Nagusiaren esku jartzeko. Txosten horretan, Sozietatearen organoen funtzionamendua ebaluatuko da esparru horretatik.

18. artikulua. Saioen garapena

Kontseilua baliozkotasunez eratuko da Kontseilua osatzen duten pertsonen gutxienez erdia gehi bat bertaratzen direnean, edo ordezkaturik parte hartzen ari direnean.

Kontseilariak Kontseiluaren bilkuretara joan beharko dute, eta, ezin badute, Kontseiluko beste kide bat euren ordezkari izan dadin ahaleginduko dira. Ordezkaritza idatziz eman beharko da, eta, hala badagokio, dagozkion jarraibideak jasoko ditu. Presidenteak erabakiko du, zalantzarik izanez gero, bilkurara joaten ez diren kontseilariak emandako ordezkariak baliozkotasunari buruz.

Presidenteak eztabaida antolatuko du, Kontseiluko kide guztiek organoaren eztabaidetan parte har dezaten saiaturikoa da eta horixe sustatuko du, eta gaiak behar bezala eztabaidatuz jotzen dituen bozketak bideratuko du.

Legeak, Sozietatearen Estatutuek edo Kontseiluaren Estatutuak gehiengo indartua eskatzen dutenean izan ezik, bilerara bertaratutako edo ordezkaturik kontseilarien gehiengo osoz hartuko dira erabakiak, eta presidenteak, berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa izango du.

Kontseiluko kide bakoitzak, bertaratuta edo behar bezalako ordezkariaren bidez, boto bat izango du.

19. artikulua. Kontseiluaren aktak

badago, idazkariordeak, hala izendatu bada. Biak falta badira, adinez gazteena den kontseilariak egingo du akta.

Kontseiluak berak onartuko du akta, bilkura horren amaieran edo hurrengo bilkuran.

VII. KAPITULUA

KONTSEILARIAK IZENDATZEA ETA KARGUTIK KENTZEA

20. artikulua. Kontseilariak izendatzea

Kontseiluko kideak Batzar Nagusiak izendatuko edo berriz hautatuko ditu, Kapital Sozietateei buruzko Legean, Ondareari buruzko Euskadiko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuan eta Sozietatearen Estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Idazkaritzak enpresako alderdi garrantzitsuenei, Kontseiluak aztertutako gai garrantzitsuenei, Kontseiluaren Estatutuari eta bileren funtzionamendu-mekanismoei buruzko informazioa eta orientazioa emango die Kontseiluko kide berriei.

21. artikulua. Karguaren iraupena

Kontseiluko kideek Estatutu Sozialetan ezarritako epean beteko dute kargua, eta epe hori amaitutakoan, iraupen bereko edo txikiagoko aldietarako hautatu ahal izango dira berriz.

Kooptazio bidez izendatutako pertsonak lehenengo Batzar Nagusia bildu arte beteko dute beren kargua.

22. artikulua. Kontseilariak kargutik kentzea

Kontseiluko kideak aldi baterako izendatzen dira, hortaz, kargua utziko dute aipatutako aldi hori igarotakoan edo Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean, lege eta estatutuen arabera emandako eskumenak erabiliz.

Kontseilariak Administrazio Kontseiluaren esku utzi beharko dute beren kargua, eta, Kontseiluak egoki iritziz gero, dimisioa gauzatu beharko dute honako kasu hauetan:

- a. Legez aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasuren batean sartuta daudenean.
- b. Kontseiluko kide diren aldetik dituzten betebeharrak bete ez dituztenean.
- c. Kontseiluan jarraitzeak sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.

VIII. KAPITULUA

KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK (KODE DEONTOLOGIKOA)

23. artikulua. Jokabide-irizpideak

Administrazio Kontseiluaren jardueran uneoro nagusi izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

- a. Sozietatearen xedea betetzea
- b. Sozietatearen bideragarritasuna defendatzea
- c. Sozietatearen balioaren gehikuntza

Hori guztia eskura dauden baliabideen kudeaketa optimizatuz egin beharko da, langileekin, hornitzaileekin eta finantzatzaileekin hitzartutako kontratuak fede onez betez, eta, oro har, Sozietatea gidatzen duen arduradun baten berezko betebeharrak bete.

Antolaketa korporatiboaren esparruan, Kontseiluak beharrezko neurriak hartuko ditu, Sozietatearen zuzendaritza Kontseiluaren ikuskapen eraginkorraren mende dagoela ziurtatzeko.

24. artikulua. Kontseilariaren betebeharrak nagusiak

Kontseilariaren eginkizuna Sozietatearen kudeaketa orientatzea eta kontrolatzea da, balioa ahalik eta gehien sortzeko.

Bere eginkizunak betetzean, pertsona horrek fede onez jardungo du, enpresari ordenatu baten eta ordezkari leial baten ardurarekin, eta Legeak ezarritako betebeharrak bete beharko ditu, gizarte-interesarekiko leialtasunez.

Legearen ondoriozko beste betebeharrak guztiak alde batera utzi gabe, kontseilariak betebeharrak hauek izango ditu, bereziki:

- a. Sozietatearen administrazioak planteatzen dituen gaiak erregularitasunez jarraitzeko beharrezko denbora eta ahaleginak egitea, horretarako behar den informazioa bilduz.
- b. Konpromiso pertsonala izango da Kontseiluaren bileretara joatea, eta eztabaidetan aktiboki parte hartzea, haren irizpideak benetan lagun dezan erabakiak hartzen.
- c. Administrazio Kontseiluak agintzen dion eta dedikazio-konpromisoan arrazoiz jasota dagoen edozein zeregin espezifiko egitea.
- d. Sozietatearen kudeaketan ezagutzen duen edozein irregulartasun ikertzea eta edozein arrisku-egoera zaintzea.
- e. Oro har, legeak eta estatutuek ezarritako betebeharrak interes sozialarekiko leialtasunez betetzea, eta legearen, estatutu sozialen edo interes sozialaren aurkako akordioen aurka egitea, eta, interes hori babesteko komenigarriena iruditzen zaionean, aurkakotasuna aktan jasota gera dadila eskatzea.

25. artikulua. Konfidentzialtasun-betebeharra

Eginkizunak utzi ondoren ere, Kontseiluko kideek isilpeko informazioak isilpean gorde beharko dituzte, eta kargua betetzearen ondorioz ezagutzen dituzten datu, txosten edo aurrekariak isilpean gorde beharko dituzte. Datu, txosten edo aurrekari horiek

ezin izango zaizkie hirugarren pertsoneri jakinarazi, ezta zabaldu ere, interes sozialarentzat ondorio kaltegarriak izan ditzaketen kasuetan.

26. artikulua. Gardentasun- eta informazio-betebeharra

Kontseiluko kideen betebeharra da erabakiak hartzeari eragin diezaioketen interes partikularrei buruzko informazioa garaiz ematea Sozietateari.

Sozietateak eskatuta, kontseilariak Sozietateari jakinarazi beharko dizkio sozietateen kapitalean dituen partaidetza guztiak, Sozietatearen helburu soziala osatzen duen jarduera-motaren antzekoa edo osagarria, eta sozietatean betetzen dituen karguak edo eginkizunak, baita Sozietatearen helburu soziala osatzen duen jardueraren antzeko edo osagarri den jarduerarekin bere kontura edo besteren kontura egiten dituen jarduerak ere. Eta, oro har, Sozietatearen administrazioan jarduteko garrantzitsua izan daitekeen edozein gertaera edo egoera.

Era berean, Sozietateari jakinarazi beharko dizkio bere lanbide-egoeran gertatzen diren aldaketa esanguratsuak, baldin eta kontseilari izendatzeko erabili den izaerari edo egoerari eragiten badiote, edo interes-gatazka ekar badezakete.

Horrez gain, Sozietateari jakinarazi beharko dio edozein motatako erreklamazio judiziala, administratiboa edo beste edozein motatakoa, baldin eta, duen garrantziagatik, Sozietatearen izen onean eragin larria izan badezake.

27. artikulua. Interes-gatazka

Dagokion leialtasun-betebeharra betetzeko, kontseilariak saihestu egin beharko ditu haren eta haiekin lotura duten pertsonen eta sozietatearen arteko interes-gatazkako egoerak, eta, saihestu ezin badira, horien berri eman beharko dio Administrazio Kontseiluari. Bereziki:

- Ezin izango du parte hartu edo bertan egon, zuzenean edo zeharka bera tartean duten gaiei eragiten dieten eztabaidetan.
- Ezin izango du zuzenean edo zeharka lanbide- edo merkataritza-zerbitzuak emateko transakziorik egin Sozietatearekin, salbu eta interes-gatazkaren egoeraren berri aldeztu aurretik ematen badu eta Kontseiluak transakzioa onartzen badu.
- Ezin du aprobetxatu bere onurarako edo berari lotutako pertsonen onurarako aprobetxatu Sozietatearen negozio-aukera bat, hau da, inbertsio edo eragiketa komertzial bat egiteko sortu den edo karguarekin lotuta aurkitu den edozein aukera, ezta Sozietatearen baliabideak eta informazioa erabilita ere.

Kontseilarien eta Sozietatearen arteko leialtasunak presidentetzari informazioa ematera eraman behar ditu, edozein abusu edo ez-betetzaren berri dutenean, bereziki informazio garrantzitsua edo pribilegiatua erabiltzeari buruzkoa bada.

28. artikulua. Sozietatearen izena erabiltzea

Kontseilariak ezin izango du Sozietatearen izena erabili, eta ezin izango du Sozietatearen administratzaile-izaera aipatu bere konturako eragiketak egiteko, ezta hari lotutako pertsonen eragiketak egiteko ere.

29. artikulua. Informazio ez publikoa

Kontseilariak helburu pribatuatarako Sozietateari buruzko informazio ez-publikoa erabili ahal izango dute, baldin eta informazio hori erabiltzeak Sozietateari kalterik eragiten ez badio.

30. artikulua. Pertsona loturaduna

1. Aurreko artikuluen ondorioetarako, administratzaileekiko loturadun pertsonatzat hartuko dira:
 - a) Administratzailearen ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak.
 - b) Administratzailearen edo administratzailearen ezkontidearen aurreko nahiz ondorengo senitartekoak eta neba-arrebak.
 - c) Administratzailearen aurreko nahiz ondorengo senitartekoen eta neba-arreben ezkontideak.
 - d) Administratzailea, bere kabuz edo tarteko pertsona baten bidez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluen lehen paragrafoan jasotako egoeretako batean duten sozietateak.
2. Pertsona juridiko administratzaileari dagokionez, honako hauek hartuko dira loturadun pertsonatzat:
 - a) Pertsona juridiko administratzaileari dagokionez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluen lehen paragrafoan jasotako egoeretakoren batean dauden bazkideak.
 - b) Zuzenbidezko edo egitezko administratzaileak, likidatzaileak eta pertsona juridiko administratzailearen ahal orokorrak dituzten ahaldunak.
 - c) Talde bera osatzen duten sozietateak eta bazkideak.
 - d) Administratzaile pertsona juridikoaren ordezkariari dagokionez, aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera administratzaileei lotutako pertsonak diren pertsonak.

31. artikulua. Betebeharren hedadura

Estatutuaren kapitulu honetan kontseilariak Sozietatearekin dituzten harremanei buruz aipatzen diren betebeharrak aplikagarriak izango dira, analogiatatik, Taldeko sozietateekin izan ditzaketen harremanetan. Era berean, Estatutuaren kapitulu honetan aipatzen diren betebeharrak eskatuko zaizkie pertsona juridikoak diren kontseilarien ordezkari diren pertsona fisikoei.

IX. KAPITULUA

KONTSEILARIEN ESKUBIDEAK ETA AHALMENAK

32. artikulua. Informatzeko eta ikuskatzeko ahalmenak



Kontseilariak Sozietatearen edozein alderdiri buruzko informazioa jasotzeko, Sozietatearen liburuak, erregistroak, dokumentuak eta gainerako aurrekariak aztertzeko eta Sozietatearen instalazioak ikuskatzeko ahalmenak ditu.

Informazio-eskubidea sozietate filialetara eta partaidetuetara hedatzen da.

Sozietatearen ohiko kudeaketa ez oztopatzeko, presidentetzaren, presidenteordetzaren eta Kontseiluko idazkaritzaren bitartez bideratuko da informazio-ahalmenen egikaritzea. Kontseilariaren eskaerei erantzungo diete, eta eskatutako informazioa zuzenean emango diote. Halaber, dagokion erakundearen mailan solaskide egokiak eskainiko dizkio, edo nahi diren eginbideak eta azterketak *in situ* egin ahal izateko neurriak hartuko ditu.

33. artikulua. Adituen laguntza

Bere eginkizunak betetzeko laguntza jasotzeko, edozein kontseilarik kontratatu litzake edo bileretara joateko eskatu liezaieke lege-, kontabilitate- eta finantza-aholkularitzako arduradunei edo beste aditu batzuei.

Kargua betetzean sortu zaizkion nolabaiteko garrantzi eta konplexutasuneko arazoei buruzkoa izan behar da enkargua.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidentetzari jakinarazi behar zaio, eta betoa jar dakiokede, baldin eta egiaztatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoa aginduta dituzten eginkizunak erabat betetzeko.
- b. Duen kostua ez dela arrazoizkoa, arazoaren garrantzia aintzat hartuta.
- c. Bildutako laguntza teknikoa behar bezala eman dezaketela Sozietateko adituek eta teknikariek.

34. artikulua. Kontseilariaren ordainsaria

Kontseilariak ez dute ordainsaririk jasoko kargua betetzeagatik.

Sozietateak erantzukizun zibileko aseguruak kontratatuko du kontseilariarentzat.

X. KAPITULUA

GOBERNU KORPORATIBOA

35. artikulua. Gobernu korporatiboaren txostena

Administrazio Kontseiluak, urtero egiten den jarduera-txostenean, gobernu korporatiboari buruzko informazioa eman beharko du argitara.

Txosten horrek Sozietatearen gobernu-sistemaren egiturari eta praktikan duen funtzionamenduari buruzko azalpen zehatza eman beharko du. Nolanahi ere, gobernu korporatiboaren txostenaren gutxieneko edukia honako hau izango da:

1. Sozietatearen jabetza-egitura.



2. Sozietatearen administrazio-egitura, honako hauei buruzko informazioa barne: Administrazio Kontseiluaren osaera, antolaketa- eta funtzionamenduarauak, eta kideen nortasuna nahiz ordainsaria.
3. Arriskua kontrolatzeko sistemak.
4. Batzar Nagusiaren funtzionamendua, egiten dituen bileren garapenari buruzko informazioa barne.
5. Gobernu korporatiboaren gomendioen jarraipen-maila edo, hala badagokio, gomendio horien jarraipenik ezaren azalpena.

Gobernu korporatiboaren txostena 2010eko ekitaldi ekonomikoari dagokionez egingo da lehenengo aldiz.